

IRAKURLEEN KLUBAK

Irakurzaletasuna, Maitasunetik Mesedez



Gazttxoen irakurzaletasunaren inguruko kezka dute liburutegietako arduradunek, irakasle, guraso eta bestelako hezitzaileek.

Egun osoa irakurtzen pasatzen duten arren, halabeharrez irakurtzen dute eskolan, eta pantailen bitartez aisialdian; askok irakurtzea gorroto dutela adierazten dute, eta liburutegia ez omen dute apenas zapaltzen.

Ume batek irakurtzea gorroto duela esaten duen bakoitzean unikornio bat hiltzen da.

Irakurtzea BIDAIATZEA da, munduaren ulermena zabaltzeko tresna handiena, seguraski.

PLAZERRAren bitartez irakurtzea da gakoa.

Proiektu honen funtsa gazttxoei irakurtzea zeinen gustagarria izan daitekeen frogatzea da.

Modu atseginak bilatuko ditugu eta klub erakargarri bat sortuko dugu irakurzaletasunarekiko nolabaiteko lilura sortarazteko.

NOLA:

-Amorebieta-Etxanoko 9 eta 15 urte bitarteko umeei zuzendutako proiektua da.

-Herriko sei eskolatan 12 gaztetxo osatutako taldetxo bana zozketan aukeratuko dugu, eta taldetxo honek osatuko du euren eskolako IRAKURLEEN KLUBA. Baten batek ez balu Klubean parte hartu nahi berriz zozketatuko litzateke bere lekua.

-Eskola bakoitzeko Irakurleen Klubeko umeak zozketan aukeratuak izango dira, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako gelatan, eta DBHko 1., 2. eta 3. mailako gelatan, neska eta mutil kopuru bera atera dadin zainduz.

-Irakurleen Klub bakoitza hilean behin 2 orduz bilduko da udal liburutegian, eskola ordutegi barruan.

-Irakurle Kluben bileratan literaturaren inguruko hainbat jarduera proposatuko dira, bai irakurtzeko zaletasuna, bai idazteko gogoia sustatzeko, horretarako liburutegiko liburuak erabiliz. Sormena eta jolasa izango ditugu abiapuntu.

-Irakurle Klubek klub izaera emango dien zenbait ezaugarri izango dituzte: karnetak, logotipoak, pegatinak, txapak, sare sozialetan nolabaiteko presentzia...

-Ez da Klubean egingo denaren gaineko inolako azterketa, idazlan edota erakustaldirik egingo, baldin eta parte hartzen duten gaztetxoek eskatzen ez badute. Irakurtzeko plazerra bilatzea izango dugu motore bakarra.

-Beti ere Irakurlearen Eskubideak errespetatuko dira:

IRAKURLEAREN ESKUBIDEAK:

- 1.- Ez irakurtzeko eskubidea.
- 2.- Orrialdeak saltatzeko eskubidea.
- 3.- Liburu bat ez amaitzeko eskubidea.
- 4.- Berrirakurtzeko eskubidea.
- 5.- Edozein gauza irakurtzeko eskubidea.
- 6.- Errealitatea eta fikzioa nahasteko eskubidea.
- 7.- Edozein lekutan irakurtzeko eskubidea.
- 8.- Gainetik irakurtzeko eskubidea.
- 9.- Ozen irakurtzeko eskubidea.
- 10.- Liburua ez esplikatzeko eskubidea.

(Daniel Pennacen *Como una novelatik* atereak)

ZERGATIK FORMATU HAU?

-Talde txikiekin askoz hobeto lan egiten delako, errazago delako elkar aditzea, talde-jolasak egitea... Gainera euren eguneroko gelakideen errutinatik ateratzen ditugu, beste ume batzuk ezagutzeko aukera emanaz, bestelako giro bat sortuz.

-Zozketan hautatuak izateak eta taldetxo honetan parte hartzeko pribilejioa izateak halako interes bat sortuko du bai hautatutako umeengan, bai ingurukoengan. Balio erantsi bat ematen dio irakurtzea funts daukan talde honi, irakurtzea eskolako umeentzat askotan halabeharrez egin beharreko jarduera izanik ere.

-Gaztetxo lagin honekin asmatzen badugu, gustora baldin badaude eta irakurzaletasunaz gozatzen badute, euren gozamenaren oihartzuna berehala hedatuko da lagunen edota neba-arreben artean...